

**95/2025 Ebazpena, otsailaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira 2018-19ko EPEaren deialdiko zenbait kategoriaren/lanpostu funtzionalen aldi baterako kontratazio-zerrendak, 2024ko abenduaren 31n eguneratuak, oposizio-faseari dagokion puntuazioarekin, eta egindako izen-emate berriak gehituta.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren bidez, 2023ko urriaren 31ko Erabakiaren bidez onartutako aldaketekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak egitea eta kudeatzea arautzen da (2023ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urtarrilaren 31ko 77/2025 Ebazpenaren bidez, maiatzaren 3ko 314/2024 Ebazpena aldatu da, eta **2024ko abenduaren 31 jarri da etendura-data gisa** indarrean dauden aldi baterako kontratazio-zerrendetan izen-emateak txertatzeko, 2018-19 EPEko deialdian sartutako kategoria/lanpostu funtzional guztietarako, baita zerrenda horiek **eguneratzeko eta pixkanaka web-orrian argitaratzeko** ere, oposizio-faseko puntuazioarekin, **2024ko abenduaren 31 arteko** Osakidetza lanbide-esperientziarekin eta egiaztatutako euskara-eskakizunekin.

Hori dela-eta,

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.**– Agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitara daitezela aldi baterako kontratazio-zerrendak, izendapen luzeen eta barrutikoen zerrendak eta izendapen laburren eta arlokoen zerrendak, **2024ko abenduaren 31n eguneratuta, eta data horretara arte egindako izen-emate berriak gehituta**, honako kategoria/lanpostu funtzional hauetarako:

ANATOMIA PATOLOGIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA

KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO APARATUKO FAK. ESP. MEDIKOA

AHOKO ETA AURPEGI MASAIETAKO KIRURGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA

KIRURGIA PEDIATRIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA

DERMATOLOGIA MEDIKO KIRURGIKOKO ETA BENEREOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA

ENDOKRINOLOGIAKO ETA NUTRIZIOKO FAK. ESP. MEDIKOA

EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO FAK. ESP. MEDIKOA

HEMATOLOGIAKO ETA HEMOTERAPIAKO FAK. ESP. MEDIKOA

MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO FAK. ESP. MEDIKOA

MEDIKUNTZA NUKLEARREKO FAK. ESP. MEDIKOA

NEFROLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA

OBSTETRIZIAKO ETA GINEKOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA

OFTALMOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA



OTORRINOLARINGOLOGIAKO FAK. ESP. MEDIKOA

**Bigarrena.**— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 13a.

  
  
Josune Retegi Ormazabal  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
FAKULTAD DE CIENCIAS HUMANAS

Izpta.: Josune Retegi Ormazabal

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**